

BIZKAIKO EUSKARA

Nafarroako baserri batetan egonaldi bat eginda gero, Bizkai aldeko beste batetara etorri naiz. Uraindik egun gutti egin dut hemen, bainan aspaldidanik bazter hauetan nabari nuen huts batez berriz ere ohartu naiz: hemengo jendeak eta bizkaitar askok eta askok duten euskal konplejoak.

Baserritarrekin hizketan hasi-ta berehala entzungo duzu jakiniko esatera: "gure euskara txarra da; Tolosa aldekoa-ta, hura bai hura euskara".

Konplejo honek kalte handia egiten digu denoi. Baserritar hauen haurrek gurasoen esaldi hori entzunda alde batetik, eta euskarak ezer gutxiariko balio duela ikusiaz bestetik, maiz askotan euskerari muzin egiten diote.

Bizkaitar askoren hezur-mamietan itsatsita ikusi dut konplejo hau. Konplejoak behar denaren ezatik sor daitezke. Orduan bar-kakizun izan litezke. Baina negargarri eta barka ezina da ge-zorra eta ezjakina dela merio konplejoz kutsatzea. Eta bain zuzen ere, bizkaitarren konplejo honek ez du ez bururik ez hankarrikan; gezurrarekin batera zahaldu da.

Nork esan lezake, bada, egiaz Bermeoko, Ondarruko edo Eibar-ko euskara txarra denik? Nor da gauza, behar liratekeen neuriak hartu eta etoki bateko euskara beste batekoa baino hobe-a dela esateko? Baserritarren arrazoi hau izan ohi da: "bai, guk erdara asko sartzen dugu konbertsazioan".

Eta nun ez da sartzen erdararik gaur egun? Gainera, erdal hitzak sartzeaz neurtu behar ahal dugu euskararen edertasuna? Inolaz ere ez.

Euskaraz pentsatzen dutenen euskara zoragarria da alderdi gu-ziatan. Egunero gurasoengandik jasotako euskaraz eginkizun gu-ziak egiten dituzten euskaldunen euskara ezin hobea da. Hemen ez da mailarik.

Edo beste modura esateko: hango edo hemengo euskara onena dela esaten duenak, horrekin bakarrik erakusten du kulturazko zurubian beheko mailetan gelditu dela, hizkuntza kontuetan ez-jakina dela.

Bizkaiko baserri hontako euskara entzunda gauza bat ba-karra esan liteke: euskararen gaitasuna askok usten duen baino sakonagoa, Unamunok sumatu zuen baino aberatsagoa dela inol-az ere.

Ni baserrietan kuadernoa eta hiztegia hartuta ibiltzen naiz galdezka, "hau nola esango zenuket" eta "beste horri zer izena ematen diozue?". Herri bakoitzean, ia baserri guzietan gordetzen dira beste herri eta baserrietan galdutako erazteak eta hitzak. Ezin konparaziorik egin.

Baina toki guzietan dute gauza bat eta berdiña: euskal izaera. Hots, begiak gauzak euskal-eraz ikusteko, buru-errotia ikusitako gauzak euskal modura ehotzeko eta euskal mihia gogetak benet-ako euskaraz zerbitzeko jarriak dituzte. Hau da nagusi, honi zor zaio errespetua.

Ahal dela, euskal hitzak erabili behar ditugu, baina euskar-aren garbitasuna buruko errotan dago, beste inun baino gehiago. Honekin bi ondorio atera beharko genuke: bata, bazter guz-ietako euskara goraltzea. Beste euskalki guziki hutsaren urren bai-rian, beti eskualde bateko euskara gora eta goraka dabilenak, ez dio euskerari inongo mesederik egiten.

Bigarrena: berrietan ihardun beharrenean, ahal dugun neurrian (irakurriaz behinik behin) Euskal Herrian luse-zabalean gordeta dauden euskal aberastasunak jaso eta horiekin geuren buruak apa-ingo jantzi.

Bizkaiko zahar eta gazteok: erdararen onerako diren konple-joak erantzi! Zuzen euskaratik zenbat ikas lezakeen aipaltasun pik-ka bat duen euskaldunak!

Gotzon Garate

LAIKOTASUNAREN ZAILA

Aspaldidanik, betidanik nik uste, borroka latza darama gizonak lai-kotasuna lortzekotan. Behin eta be-rriz nagusitzen dira gizarteaz fede-dunak; alegia, beren burua Egiaren jabe aitortzen dutenak; eta, behin eta berriz horretara, laikotasuna, gi-zartea fedeetatik at eraiki nahia alegia, gerorako helburu zail bihur-tzen. Laikotasuna, halere, eta zori-tzarrez, berantegi baizik ez da na-gusitu ohi; alegia, ez errespetuz, baina fede berriaren zarrakatzeari, ondorioz.

Hots, Kondairak argi eta garbi erakutsi duenez, Teokrazia guztiek zapaldu dute gizona. Zapaldu baka-rik ez: ezen giza-zapakuntzarik la-rrienak hain zuzen Egiaren izenean obratzen baitira.

Laikotasuna, horretara, Teokrazia mota guztien aurka altxatzen da. Baina lanak ditu aurrera ateratzen, eta gaitzak izaten gero; Teokrazia guztien aintzindariak eta obratzai-leak sinetsita baitaude barne-mui-neraino Egiaren zabalketa eta na-gusi-erazteka nekez har daitezkeela zapalkeztat.

Kristau gizarte bateko seme ga-renok ongi dakigu hau. Elizak se-kulako astinduko hartu ondoren ere, eta orain dela urte gutxi arte, au-sardia kaltegarritzat hartzen zuten fededun-iki gehienek Maritain-en teo-ria famatua: berez, «tesi-aren mail-an alegia, gizarteak kristau izan behar lukeela, eta kristau aitortu; baina, gauzak beren horretan egon-da, «hipotesi»an alegia, gizarteak ez daukala gaur kristau aitortu be-harrik, ez osoki kristau gizarte iza-teriki. Oraindik ere oroitzen naiz, Vaticano I aipatu ohi zen joera ho-rron kontra; eta Maritain-en laiko-tasuna traiziotzat hartzen zuten fe-dedunenek.

Iparraldeko Euskal Herrian, era berean, fededunen eta laikoen arteko herrak ez dira herri txikietan zeharo itzaldutako: eskola laikoaren aldekoek lanak izan dituzte oraintsu arte erlijio-iki gabeko irakaskintza eskatzeagatik.

Gauzak gaur, jakina, ahuleziak ber-ak eragina behar bada, zinez al-du dira; eta fededunen zanpatu-nahia ez dator gaur Elizatik.

Hots, laikook fede-arazoak libro uztea e sskatzen dugu, denen aska-tasuna eta hautabidea errespetat-zeko, oker egoteko eskubidea be-rra ez kentzeko. Fededunek, berriz, berek ez bestek omen daukaten Egiaren zerbitzutan, dena ukatu na-hi.

Kakoa horrela aurkeztuta, ordea, nork ez luke laurte alderdia har-dela uste sustatuko? Denek onartu behar lukete, itxuraz.

Arazoa, hala ere, ez da batere erraza; zeren-eta fededunak beti uste izaten baitu fede bat ez-baina Egia hutsa defenditzen duela.

Fededunak ez du bere burua se-kula fededunatzat hartzen. Aitzitik, «anti» amorratuen sumatzen ditu fedegabeak oro: «katu epelak sur-tara!». Hauen kontrako guruzada horrela ez zaio guruzada iruditzen, ilunkerien kontrako garbiketa lana baizik; poxi bat lapurrak eta hil-tzaileak gartzelan sartzea bezala-tsu. Fedearen aurkako liburuak de-

bekatzea, era berean, ez zaio fe-dedunari inondik ere idei-mozketa iruditzen; fedearen aurkako libu-ruok debekatu, pornografiaren edo pozoinaren salmenta debekatzen ari dela uste baitu.

Arazoa, horretara, Teokrazia gu-ztien azterketa-baranoan, hauxe iz-a ten da: non bukatzen da Egia, eta non hasten Fedegai-a? Non buka-tzen da frogaturik dagoena, eta non hasten usteak, uste ustelak eta us-tekeriak?

Erraza bide litzateke erantzuna: Zientziaren eskualedean bukatzen den mugari-lerroan hasten da Fe-dea. Edo Russell-ek ongi esan ohi zuen bezala esateko, «badakigunak osatzen du Zientzia; ez dakigunak, berriz, Filosofia».

Eta horra hor koska. Matemati-kalari eta Zientzi-gizon bikaina izan zen Russell horrek berak hau iz-kiariatu baituzen: «Par religion j'en-tends un ensemble de croyances tenues pour dogmes, qui régentent la conduite de la vie, outrepassent ou contredisent les preuves, et s'in-culquent par des méthodes affectives ou autoritaires, mais non in-tellectuelles». Definizio gisa bikai-na dela iruditzen zait.

Hots, 1920an lerro horiek izki-riatzen zituelarik, honela jarraitzen ligiton... Ceux qui acceptent le bol-zhisme en Russie: «d'après cette dé-finition, le bolchevisme est une re-cherche scientifique, et com-mettent un suicide intellectuel». («Pratique et Théorie du Bolchevisme», 108-109, édit. Mercure).

Nola har ditzake lerro hauek marxismo-leninismoa «sozialismo zientifiko»-tzat daukanak? Oso gaiz-ki, dudarik gabe. Eta nahi-eta-ez «filosofo burges»-tzat salatuko da B. Russell; alegia, alienazio eta ge-zur saltzailatzat.

Baina 1920an, inolako errebisio-nismo guztiak baino lehenago, eta Lenin oraindik ere buru nabarmen zelarik, hau izkiriatu zuen Russell-ek liburu berean: «A mon avis, voici ce qui probablement se pas-sera en Russie: une aristocratie bureaucratique tiendra tout le pouvoir en main, et créera un régime aussi tyranique et cruel que le capita-lisme». 1920az geroztik hau zorroz-ki iragarri zuena ez zen zozoa!

Marxista-leninista ez garen guz-tiok «anti» amorratutzat hartzen gaituzte fede berriaren sinestunek; eta nik artikulau hau izkiriatur, se-kulako eskomikuak bilduko ditut Egiaren eta Fedearen arteko mu-garriak haruntz edo honutz da-vela uste dutenen artean. Baina Russellen alderdian egoteak kement handia ematen dit.

Laiko berrien artean nago ni; eta gure eginkizunari, zaila eta atseka-bea izanagatik ere, gaurko Euskal Herrian eutsi egin behar diogu. Garbiketa-lan hau guztiz premia-tsu da-ta.

Stalinismoa ez da gure ezaguga-rria. Zerenahi esan arren, ez dugu guk, laikook, inor inoiz surlara era-mungo, ez liburu-iki galaraziko. Guk sozialismoari buruz ere laikotasuna eskatzen dugu. Modan ez omen da-guon eskabidea, jakina; baina den-

borarekin bidezkozkat hartuko der- eskabidea.

Sozialismo laiko bat nahi dugu guk. Marx-en irakaspenean oso ga-rrantzi handikotzat jorik ere, oso kontutan hartzekoak izanik ere, eta zenbait puntutan oso argigarri an-tzemanik ere, beste puntu askotan, sakoneten behar bada, marxismoa ide-i-okerkuntza, giza-zapaketa eta alienazio-iturri oparo gertatu dela iruditzen zaigu; eta argi eta garbi esan beharra dagoela uste dugu. Ni neu ez naiz marxista, eta ez naiz batere bildur esateko.

Geure burua sozialista laiko ai-ortzen dugunok, halaz ere, ez du-gu inondik inora eskatzen eta ez eskatuko marxismoa eta marxistak surlara edo isildu beharrera era-matea, kristauak edo budistak sur-tara edo isildu-beharrera botatzea eskatzen ez dugun bezalaxe. Gu fe-dedun ez izatea, ez da errotik kon-tra izatea. Ez gara «anti», ez da egia. Eta ez gara anti-stalinismo sta-linisten aldekoak. Behin eta berriz aitortu dugun marxistekiko, eta zu-zenaren alde buru-belarri borroka-tzen den edonorekiko, geure erres-peturi egiazkoena; eta, sozialista garenaz, Allende-kin bidetik, mar-xista-leninistekin esku esku ibil-tzeko geure deliberoa.

Baina errespetu hori dela-ta, ez dugu guk geure burua ukatzeko edo izkatzeko batere beharrik. Gu fe-dedun eta Lenin-en fededunak; eta sozialismoaren mailan anitzasu-na eta laikotasuna eskatzen ditugu garbiki, eta batere lotsarik gabe.

Laikotasun eta anitzasun horret-a iritsiz gero, gainera, egiazko po-litika-mailan mugitzen hasiko gare-la iruditzen zaigu. Teoriaren mail-an ez gara inoiz ados izango; bai-na etsai berberaren kontra borro-katzeko aukera ez zaigu faltako!

Alajainkoa! Badugu garaia!

Eskuz esku bai, berria. Baina nor bere bidetik. Zer hoberik?

LARRESORO

DISTIRAK

KOLONIZATZAILEA DESKOLONIZATU

KARLOS SANTAMARIA

Aurrera omen darama, Spi-nola jeneralak, Portugaleko Inperioaren deskolonizazioa. Gertaera honek arreta mere-zi du, hamaika arazoi-erenga-tik. Halere, beraren saihets berezi bat, besterik ez, iku-sarraz nahiko gureko hontan. Gerla bukatu zenez gero-ztik kolonial inperiorik handie-nak itzali dira, munduaren po-litikazko mapa osoro aldatu-rik. Kontura gaitzen hogeita hemazazpi Estatu berri ager-tu direla, azkeneko aspaldi hontan, Afrikan bakarrik.

Baina orain arteko kasuak —Bretonia Handia, Frantzia, Holanda eta Belgikako kolonienak, alegia— Portugale-nak ez bezalakak izan dira.

Aipatutako metropolak, he-rri aberatsak eta aurreeratuak dira, nahiz politikaren alde-tik, nahiz ekonomia-erentik. Herri libreak edo, demokra-ziazko eskubideekin hornitu-rik behintzat.

Portugalerra, berriz, Olivei-ra eta Ceatano errejimenaren artean, herri menpeko eta ume bat bezala trataturik ze-goen. Herri kolonizatu bat izan dela esan daiteke, bes-te beste, eta oraindik, hola-ko egoeratik ateratzea ikus-kizun da. Nahiz eta Inperio handi bat ukan, pobretasun eta behartasun gorriaz bizi-zan portugez gehiena, eta, gainera, egiazko libertaderik gabe, politikazko polizia-ren botere ikaragarriaren men-pean, Metropolazalako, kolo-nien populua baino libreagoa ez omen zen, biak oligarkia beraren pean zudelako.

Ora in, emadaren mugimenduk, edo kapitanean ma-xinaduk, bi askatasun egiaz-tatu nahi du batean: alde batetik, koloniak Estatu libre-tzat litzatzea; bestaldetik, Por-tugal bera demokrazia gisa abiarazi. Lehengo zaila bada ere, bigarrenari zailagoa de-rikio, oraindik.

Hainbeste denboraz tira-nian bizi diren portugesen ohiturak aldatu behar ditu Estatu berriak, jendea aska-tasunerako behar den bezala hazi eta prestatzeko. Hitz ba-tean metropolak delakoa deskolonizatu behar du haren koloniek in batean.

Eginkizun hontan portuge-sak eta afrikatarrek ez bide dira etsaiak, gideak, lagunak eta anaiak baizik. Ez da es-traina, beraz, oraingo garaian soldadurak eta makistarrak el-karrekin adiskidetzera eta ki-denaitezera.

Egiazko etsaiak oraindik ez dira agertu. Laster agertuko dira ordea. Ego Afrikaren Es-tatu arazistak arriskuan dau-de. Bestaldetik izutuko kapi-talismoaren indarrak prest daude horien alde sudurra sartzeko. Eta Portugalen ber-tan indar estaliak kontramu-gimendu bat egiteko presta-ten ari dira, dudarik ez.

Dena dela, Estatu berriak guda guzti heuk irabaziko li-tuzke, egiazko demokrazia bat zutik jarri eta populua askatasun lokaerako haztea eta heztea lortzen baldin ba-lu.

Nahiz eta paradoxa itxura izan, hau da, gure ustez, gaurko Portugalen azorarik nagusierna: Portugalerrari aska-tasuna ematea.

Kolonizatzaila deskoloni-zatu, hau da komerial!

ARGIA

Zuzendaria:
MIREN JONE AZURZA

ARISTEGIETA

Nafarroa, Kantauri eta Ara-goiako Kaputxinoek argitara-tua. (Kale Nagusia, 50-1.º Bur-lada - IRUIREA).

Donostia: Okendo, 22
Tel. 41 95 88

ARPIDE SARIA:

Barruan	350 pezeta
Korreo batasunetako herrietan	400 pezeta
Atzerrietako bes-te herrietan	420 pezeta
Airez	Aldez aurretik galdetu

Salmenta (ale bakoitza) 8 pezeta

Moldiztegia eta Idazkolea:
«Gráficas Navasa»
A. Aodoan, 1. IRUIREA
D. L.: NA. 80-1963